

# Giza eskubideak Jaurlaritzan bai: eta aldundietan?

**Jon Mirena Landa**

Giza Eskubideen eta Botere Publikoen EHuko UNESCO katedraren zuzendaria

**L**egingintzaldia amaitzera doanean une egokia izaten da datoren zikloan zabaldu behar diren politikak proposatzeko, horrek agian eztabaida politikoa, jatorria, elika dezakeelakoan.

Giza eskubideen politikai dagokiez, ikuspuntu ugariatik hel dakiokoe gaiari, baina, hemen, ereduaz, alegia, Jaurlaritzaren eta aldundien arteko ereduaz, nahiko nuke jardun.

Eusko Jaurlaritzan aspaldi (1991n) sortu zen Giza Eskubideen Zuzendaritza. Hasieran bere eginkizuna partekatzen zen beste politika publikoekin batera. Baina 2005etik aurrera, lehenengo aldiz, bazegoen gure erkidegoko jaurlaritza-organigraman halako bulego edota leiho monografikoa, giza eskubideak bultzatzera oso-osorik dedikatua. Eta hori, esan beharra dago, bada Nazioarteko Giza Eskubideen Zuzendabideko estandarretatik edozein gobernuri eskatzen zaiona. Izan ere, halako bulego edota zuzendaritza batek bete behar duen funtzioa zera baita: botere betearazle osoak politika orotan jardun dezala giza eskubideekin bat etorritz.

Justizia Sailetik lehendakaritzara eraman zen giza eskubideen aipatu zuzendaritza, eta biktimen zuzendaritzarekin batu ostean, idazkaritza orokorra osatu zen, gaiaren garrantzia eta lehentasun politikoa, nire iritziz apalean, behar bezala islatuz. Eta aipatu egitura instituzionalak gaur arte dirau.

Gauzak horrela izanik, galdera, ordea, bada: erkidegoko Jaurlaritza zentralak bakar-bakarrak giza eskubideen bulego propio behar al du izan? Nazio Batuek eta gaiaren garrantziak berak galdetzen duten ardurara hori bakarrik Eusko Jaurlaritzan eta ez lurralde historiko bakoitzeko gobernuetan bete behar al da? Beste hitzetan: inoiz pentsatu al dugu noraino giza eskubideen kudeaketa Euskadineko modu zentralizatuan ala deszentrali-

zatuaren aurrera eraman behar ote den?

Nik esango nuke ereduaz ez dela aparteko hausnarketarik egin. Eta hori politikako hainbat esparrutan normala izaten da, arazoei heltzen zaie-eta etorri ahala. Egia da, beste alde batetik, giza eskubideen gaiak *erretzen* zuela, batez ere, ETA indarrean egon zen bitartean, eta horregatik, isildibidez, *Lakua*-tik bideratzen ziren gauzak.

Une jakin batetik aurrera, ordea, aldundietan gaiaren garrantziak jabetzen hasi ziren. 2000ko hamarkadan Gipuzkoako Foru Aldundian, lurralde historikoaren artean lehenean, giza eskubideen zuzendaritza sortu egin zen, eta harrez geroztik, izen batekin edo bestearekin, mantendu egin da. Mantendu ez ezik, lantzen dituzten politiken ikuspegitik zein konprometitzen duten energia eta bitartekoetatik begiraruta, indartuz doan esparru bat da, zalantzarik gabe. Politika baldin bada lehentasunak ezartzea, garbi dago Gipuzkoarentzat giza eskubideen gaiak kontatzen duela, areago kontuan edukiz gero zuzendaritza hori ahaldu edo diputatu nagusiaren sailean bertan kokatzen dela. Keinu sinbolikoa bezain zentzuzkoa nire aburuz, Eusko Jaurlaritzaren kasuan lehendakaritzan hain justu ere kokatzen den idazkaritza orokorraren ildo beretik.

Araban ere giza eskubideen politika indarra ari da irabazten. Gaiotan lan

serioa aspaldikoa izan arren, 2019an Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza sortu berri da, eta, Gipuzkoan bezala, diputatu nagusiaren arloan bertan, gobernu muinean beraz, kokatu dute. *Berdintasuna eta Giza Eskubideak* du izena.

Bizkaiko Aldundiari so eginez, aitzitik, giza eskubideen zuzendaritza propiorik ez dago. Egia da, dena dela, besteak beste, bai berdintasuna bai lankidetzaren dibertsitatea sustatzeko zuzendaritza orokorrak badituztela. Bizkaian, hortaz, giza eskubideen politika batzuk, sektorialak, horixe badituztela. Kontua da, ordea, organigrama osoan ez dela *giza eskubideak* esamoldea azaltzen.

Eta horrek eztabaidarako beta ezin hobe ematen du. Nola landu behar dira giza eskubideak gure herrian? Dena Eusko Jaurlaritzatik? Edo hobeto gobernantza partekatuaren bitartez aldundiekin zuzeneko koordinazio egitura egoki eta esanbidezkoaren laguntza? Nik esango nuke elkarkidetzaren bidea dela. Aldundiek ikaragarriko pisu instituzionala dute, eta, horren ondorioz, giza eskubideen ikuspegitik ezin dira albo batera geratu. Gure herrian giza eskubideak lantzeko orduan aldundiek badute zeresan handia eta egunerokoan esparru sektorialetan lanean dihardute fundamente osoz. Eta hori izanaz hala bada, izenaz eta egitura organikoaren ere hala beharko, izena eta izana bat etorri behar izatekotan. Horrek gainera aldaketa kualitatiboa lekarke, hainbat politika arrazionalizatzeko. Bai eta kanpora begira ere, nazioarte mailan gure herrian erakunde maila desberdinetan dagoen guztia eragingarritasunez erakutsi eta partekatzerakoan.

Ez nabil hemen izen-etzabaida kosmetikoaz. Giza eskubideen sare instituzional argia badugu, hobeto arituko gara: giza eskubideak, guztiak, hobeto beteko dira.

Baina ereduaz zein izan behar den baino lehen, ereduaren eztabaida pendienteaz jabetu beharko ginatke. Hauteskundeak ate joka ditugula, horra hor gure herriko alderdi eta eragiletarako hausnarketa bideetako bat. Ingelesek dioten bezala: *food for thought!* (pentsarazteko janaria). On egin!

## Eztitu edo ezkutatu

**H**ollywood izeneko telesail ezituan, Netflixen estreinatua berrian, zinemagintzaren auzi arrazialari eta homosexualitatearenari konponbide erraza eta bihotz altxagarria ematen zaio. Homofobia eta aurreiritzi arrazistak gainditu



**JIRA**  
Angel Erro

daitezke, borondate irmoaz jokatzeko, iraganen, erretrospektiboki. 1950eko hamarkadan kokatuta egon arren, bi mutil-lagun (Rock Hudson aktorea eta Archie Coleman gidoiari beltza) eskutik ager daitezke Oscar sariaren emanaldian argazkilariekin aurrean. Garai horretan pentsaezina, areago armairutik inoiz atera gabeko Rock Hudsonen kasuan.

Kontuz ibili behar dugu iraganarekin zer egiten dugun. Gaurkoaren begiradaz libratu ezin dugula jakin arren, gaurkoaren bilbetik pasatzea sailhestu ezin dugula jakin arren, hartaz pentsatze hutsaren gain manipulatzeko ari garela jakinda ere, ahalik eta modu zorrotzenezan jokatzeko saiatu beharko genuke. Iragina epaitu bai, gaitzetsi ere bai, gauzak birkokatu, zergatik ez, baina atzera begirako konpontxoak ezinezkoak direla ulertuta. HBO Max kateak *Gone with the wind* katalogotik kendu du filmaren elementu arrazistak direla eta.

Nire ustez ez diogu orainari (orain eraiki behar dugun gizarte bidezkoagoari) mesederik egiten iragana ezititu edo ezkutatu.

## Ateak

**A**terik ixten ez den etxe batean jai nintzen. Orain ere, nire atea, hala egoten da. Jende asko etortzen zen gurea umeak ginenean: aitonaen aitzakian, zerbait ekartzera, norbaiten bila eta heldu ginenera arte galdetzen ez genituen beste mila arrazoirengatik. Beti entzun diet etxekoei gurean denak direla edo etorriak



**BIRA**  
Onintza Enbeita

Guardia Zibila izan ezik; eta haiek ere sartu izan zaizkigu, sukaldaraino, eta eraman dituzkigute maite genituenak. Pandemia garaian, ordea, dena aldatu da. Gure etxeetako batera joan ezinda egon gara. Ze

gurean, etxeak, ia denak dira gureak, eta atek guztietan daude zabalik.

Elkartu gara halako batean. Eta osasun arrazoiengatik bolada batez atea itxita izan dutela esan digute. Gu ere horrela egon gara, gotortuta, baina ez dugu hain gordin onartu atea itxi dugunik. Ez nuke nahi pandemia izatea atek berriro ez zabaltzeko aitzakia: guk ireki ditugu. Beti bezainbeste laguntzat, beti bezain gutxi etsaientzat.

Bizitza aldatu zaigu, egoera aldatu da, kointura berrian gaudela diote, baina gure etxeko atek iraundera du zabalik. Ez lapurrentzat, ez Guardia Zibilarientzat, ez asmo txarrez datorrenentzat, baina bai laguntzat, maite dituguentzat eta etxeak gordetzen dituen baloreak babesten dituenentzat.